

Gasteizek Papelerarentzako laguntzak onartu ditu baina ez hodi enpresentzat

Azken hauek sektorea berregituratzeko beste plan bat egin beharko dute

La Papelera Española enpresarentzat 3.500 milioi pezetaren laguntzak abaletan ematea onartu zuen atzo Eusko Jaurkaritzak. Hala ere, Gasteizek ez du onartat eman Tubacex, Tubos Reunidos eta Productos Tubulares enpresek aurkezturiko hodi sektorearen berregituraketa egitasmoa.

J. AIARZA / GASTEIZ

La Papelera Españolaentzako 3.500 milioi pezetaren (175 milioi libera) laguntzak duela urtebetetik aurrizkita zeuzkan Gobernuak, baina Europako Komunitateak denbora eman zuen behin-betiko onespina emateko eta horregatik Gasteizek ez zien atzo arte argi berdea eman.

Laguntza hauei esker paper-gintza alorreko euskal enpresa garrantzitsu honek bere jarduerari eutsi ahal izango dio. La Papelerak 8.500 milioi pezeta galdu zituen iazko ekitaldian eta orain dela hilabete batzuk zuzendaritza aldatu zuen, gestio eraginkorra goa lortzeko.

Gaur egun, enpresa hau lehengo zeukan merkatu kuota berriskuratzeko ahalagindu beharrean dago, besteak beste prentsa paper sektorean, baina kutxa arazo handiak ditu aurrera egiteko.



La Papelera Españolaek Errenteriako lantegiari emango dio lehentasuna.

ANDER GILLENEA

Bitartean, langileek protestaldiak egin dituzte azken asteotan euskal Administrazioari laguntza hauek eman ditzala eskatzeko, enpresak dirutza handia zor baitie.

ENPRESEN PLANA ALDATU

Bestalde, Industria Sailak ez du begi onez ikusi Tubacex, Tubos Reunidos eta Productos Tubulares (Babcock Wilcox) enpresek hodi sektorearen berregituraketarako aurkezturiko proposamena eta aurtengo uztai-

la baino lehen beste estratategi plan bat aurkezteko agindu die, laguntza publikoak jasoko badituzte.

Sail honetako iturrien arabera, hiru enpresa hauek sinaturiko akordioaren helburua «enpresa bakoitzaren arazoa konpontzea» besterik ez da eta planteatzen duten «sektore ekintza» bakarra «Administrazioaren laguntzak eskuratzeko da».

Halaber, enpresen dokumentuak ez du zehazten akordiorik merkataritza, erosketa edo teknologi politiken aldetik ezta pro-

dukzio alorrean ere, Eusko Jaur-laritzaren ustez.

Langile soberakinari dago-kionez, Industria Sailak uste du 900 langile kaleratzeko aurrizkuspina «erretiro aurreratuak eta saritutako bajak hartzeko baldintza historikoetan» planteatuta dagoela eta hau ez dela egokia Administrazio eta enpresen egoera ekonomikoak aintzat hartuta.

Hodi sektoreko enpresen proposamen honen akatsak ikusirik, Gobernuak beste sektore plan bat prestatzeko agindu die hiru enpresei, Gasteizen onartu eta laguntza proposamena Bruselara bidaltzeko. Plan honek epe luze-rako sektore egitasmoa jaso behar luke eta bertan enpresen egitasmoak txertatuko lirateke, hiru konpainien bideragarritasuna ziurtatzeko, Gasteizen arabera.

Akordiorik ez Ardanza eta ELA, LAB eta CCOOren artean gizarte itunaren gailan

GASTEIZ

Ekonomia eta enplegua sustertzeko Eusko Jaur-laritzak sindikatuari eta patronalari aurkeztutako gizarte itunerako azken proposamenak ez duela hasierakoarekin alderatuz ezberdintasun handirik ziurtatu zuten atzo ELA, LAB eta CCOO sindikatuak ordezkariek Ardanzarekin bildu aurretik.

Gizarte itunerako lehen proposamena sindikatuari eta patronalari aurkeztu eta hauen iritzia jaso ondoren Gasteizko Gobernuak egindako bigarren dokumentuarekin ere ez daude, beraz, ados ELA, LAB eta CCOO. Gaur arratsaldean UGTrekin bilduko da UGT sindikatuak izango da Ardanza eta bere gobernuakideekin bilduko dena, bigarren elkar-riketara txandari bukatu emanez.

Jose Elorrieta ELAko idazkariak adierazi zuenez, hiru sindikatuak ez dute itunari buruzko proposamen berririk egingo.

ELA, LAB eta CCOOk sinaturiko enplegu eta berrindustrializazioaren aldeko akordioa oraindik ere «industri egoerari buruzko edozein ezbaidarako erreferentzia egokia» dela azpimarratu zuen Elorrietak. Ildo honetatik ekintza batasunarekin aurrera segituko dutela ziurtatu zuen.

Rafa Diez LABeko koordinatzailearen esanetan Ardanza proposamena «baliogabea» da Euskal Autonomi Elkarteak kompetentziarik ez duelako. Gasteizko Gobernuaren jarrera aldatzen ez bada «itunari buruzko maskaradari amaiera emateko garaia» izango dela gaineratu zuen Diezek.

Santiago Bengoa CCOOk buruak Ardanza bigarren dokumentuak berritasunik ez duela eta hiru sindikatuak akordioaren balioa azpimarratu zuen. Euskal Autonomi Elkarteak CCOO sindikatuaren batzorde eragileak gaur bilduko da itunerako eskaintza aurrean hartu beharreko

jarrera erabakitzeko, Bengoak jakinarazi zuenez.

HB SINDIKATUEN AKORDIOAREN ALDE

Ekonomi krisi larria gaitzeko gizarte ituna sinatzearen alde agertu da Herri Batasuna, baina beti ere ELA, LAB eta CCOO sindikatuak sinaturiko akordioa oinarri bezala hartuz. Ardanza proposamena «batez ere gizarte agenteen ekimenak geldiaraztera» bideratua dagoela adierazi zuen Jon Idigoras bozeramaileak. Bere esanetan beharrezkoa da gizarte agenteak «Madrileko Gobernua eta Iruñea eta Gasteizen dituen ordezkaritzen aurrean intsumiso» egitea.

Gizarte mailako sektoreak hiru sindikatuaren arteko enplegua eta industrializazioaren aldeko akordioaren inguruan bildu daitezkeela iritzi du HBk. Idigoras azaldu zuenez gizarte itun batek Ardanza «azaleko proposamena» baino urrutiago joan behar du.

Hegoaldeko arrantzaleek lanean jarraituko dute

DONOSTIA

Bizkaia eta Gipuzkoako baxurako arrantzaleek lanean jarraituko dute aurtengo bokartaren kostean, atzo arrain hau kiloko 210 pezeta inguruan saltzea lortu baitzuten.

Hala ere, prezio altu honen arrazoia itsasontziek harrapatutako arrain kopuru eskasa izan dela azaldu zuten sektoreko iturriek, egunotan duela bi aste baino harrapaketa urriagoak izan baitira, arrantzaleek erabakitako kontrol neurriak direla medio.

Bokartaren salneurri apalaren arrazoiak Frantzia eta Hego Amerikako arrain inportazioa eta kontserbagile zein handizkariak arrain fresku txikia arbuizatzeko izan dira.

Ondorioz, Hego Euskal Herriko arrantzaleak lehorrean izan ziren pasa den astean protesta egiteko. Astelehenean itsasora irteten zuten berriro, baina arraina 100 pezeta baino merkeago salduz gero mobilizazioak egingo zituztela mehatxatu zuten.

Prezio apalaren arazoa dela eta, arrantzaleek bete beharreko zenbait arau erabaki zuten: itsasontziko 2.000 kiloko kupoa, bokartak kiloko 100 pezetako gutxienezko prezioa eta arrainaren gutxienezko tamaina kiloko 90 ale izatea.

Arau hauek betearazteko zaindariak ezarri dituzte gainera arrantzale kofradiek.

VITORIA-GASTEIZKO
UDALA



AYUNTAMIENTO
DE VITORIA-GASTEIZ

BANDO

Korrikak apirilaren lehenean hirian barrena egingo duen ibilbideak hainbat kaletan izango du eragina, Gasteiza iritsiko den 19.45etatik bertatik aterako den 21.45etara bitartean.

Biharamonean, hilak 2, Korrika Txikia egingo da, 15.30etatik 17.00etara bitartean.

Ospakizun horiek izango dute eraginik zirkulazioan, eta glediunerik egin beharra ere gerta dakieke gidariei; jakinaren gainean egon bitez eta eragozpenak barka bitzate.

Guztiok jakin dezaten ematen da argitara, Vitoria-Gasteizen, 1993ko martxoaren 30ean.

ALKATE-UDALBATZARBURUA

